

# AUTO- EDO ETXE-ASEGURUAREN AURREKONTUA EGIN DUTEN BEZEROEN ARTEKO ZOKKETAREN OINARRIAK

## LABORAL KUTXAREN EDOZEIN BULEGOTAN, TELEFONO BIDEZKO ASEGURU-ZERBITZUAREN BIDEZ ETA LABORAL KUTXAREN WEBGUNEAN EDO ONLINE BANKAN EGINDAKO ASEGURUETARAKO

### 1.- Erakunde antolatzailea eta zozketan parte hartzeko eguna:

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarrjeta, zk.g., 20500— duenak, bi iPhone 11 zozkatuko ditu, sustapen baten barruan. Zozketan LABORAL Kutxaren bezeroek hartu ahal izango dute parte, baldin eta auto- edo etxe-aseguru baten aurrekontua egiten badute LABORAL Kutxaren edozein bulegotan, telefono bidezko aseguru-zerbitzuaren bidez eta LABORAL Kutxaren webgunean edo Online Bankan, 2021eko urtarrilaren 4tik 2021eko apirilaren 30era bitartean.

Parte-hartzaileek 18 urte baino gehiago izan behar dituzte.

### 2.- Doakoa:

Zozketak doakoak izango dira. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

### 3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa:

Zozketan LABORAL Kutxaren bezeroek hartu ahal izango dute parte, baldin eta auto- edo etxe-aseguru baten aurrekontua egiten badute LABORAL Kutxaren edozein bulegotan, telefono bidezko aseguru-zerbitzuaren bidez eta LABORAL Kutxaren webgunean edo Online Bankan, 2021eko urtarrilaren 4tik 2021eko apirilaren 30era bitartean.

NAN bakoitzeko 2 aurrekontu egin ahal izango dira autorako eta beste 2 etxerako.

Zozketatik kanpo geratuko dira beste kanal batzuen bidez egindako proiektuak, LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zuzeneko zerikusia duten pertsonak.

Irabazleak egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

### 4.- Zozketa:

Zozketaren data: 2021-04-30

Zozketan Iphone 11 smartphone bana eskuratuko duten bi irabazleen izenak aterako dira, baita ordezkoko bost izen ere, badaezpada irabazleek baldintzak betetzen ez badituzte ere. 10 egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkokoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz. Saria inpersonala eta besterengarria da.

### 5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua:

Saria: iPhone 11 modeloko smartphone bat.

Saria ezin da aldatu beste batzuekin edo haren diruzko balioarekin.

Bezero saridunak ezin izango du iPhone 11 smartphonearen kolorea aukeratu.

### 6.- Sariaren zerga-sistema:

Saria indarreko legerian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

### 7.- Irudi-eskubideak lagatzea:

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan.

Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

### 8.- Oinarriak onartzea:

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Era berean, zozketatik kanpo utzi ahal izango ditu zozketaren emaitzak fede gaiztoz aldarazten saiatzen diren pertsonak.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) orrialdean kontsulta daitezke.